

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urtarrilaren 28a

5. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, familia ugarietarako buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

—Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:

—Mahaiko erabakia. Horren bidez, Parlamentuko taldeei laguntzaileak ematen zaizkie (19. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—2002ko urrian egindako bilerak (20. or.).

—2002ko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (24. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, familia ugariei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, familia ugariei buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2002ko ekainaren 17ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

MARINÉ PUEYO DANSO

ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

1. artikuluari idatz-zati bat gehitzea proposatzen da. Hona testua:

Lege honetan jasotako neurriak aplikatzeko, horietako bakoitzak beharrezkoak dituen erregelamenduak prestatuko dira eta familien ahalmen ekonomikoaren araberako baremo bereziak ezarriko dira, halako moduan non, zenbat eta dirusarrerara gutxiago, orduan eta laguntza gehiago emanen baitira.

Zioak: Lortu nahi den helburua da onetsitako neurriak aplikatzea familia-unitate bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera, horrela baliabiderik gutxien duenari mesede egiteko.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Xedea.

Artikuluari jarraian azaltzen den esaldia gehitzea proposatzen da:

“... lanbide arteko gutxieneko soldataren %75 baino per capita errenta txikiagoa duten familia ugariei...”

Zioak: Errenta apalenak eta, beraz, familiaren baitako erantzukizunei aurre egiteko zailtasun handiagoak dituzten familia ugariei prestazio eta zerbitzuetan gauzaturiko gizarte-babes handiagoa ematea da helburu.

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

ANDREAK AURKEZTUA

2.1. artikulua ordezteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“1. Familia ugaria da lege honetan ageri diren baldintzak bete eta honako kide hauek dituen:

a) Aita, ama eta hiru seme-alaba edo gehiago.

b) Aita, ama eta bi seme-alaba, baldin eta, gutxienez ere, horietako bat ezgaitua edo ezgaia baldin bada, edo administrazio eskudunak lanerako ezintasun iraunkor bat aitortu badio.

c) Alargunak, legez edo egitatez banandurik daudenak edo ezkontza desegina dutenak, gehi hiru seme-alaba.

d) Aita, ama, horietako bat edo biak ezgai badira edo lanerako ezintasun iraunkor bat aitorturik badute, gehi bi seme-alaba.

e) Artikulu honetako a) eta b) letretan ezarritako seme-alaba kopurua daukaten eta zehazturiko baldintzak betetzen dituzten ama ezkongabeak.”

Zioak: Proposatutako testua hobetzea, proposatzen ziren hitz baztertzaila eta konstituzio aurrekoak kenduz, batetik, eta, bestetik, terminologia gaur egun zuzenbide zibilaren esparruan dagokionera egokituz.

Ama ezkongabeei dagokienez, asmoa da egoera horietan aplikatzekoa den indarreko araudia ere sartzea.

4. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Familia ugariaren kontzeptua.

Artikuluaren 1. idatz-zatiaren edukia ondokoa dioten beste bi idatz-zati hauekin ordeztzea proposatzen dugu:

“1. Familia ugaria da honako kide hauek dituen:

a) Hiru seme-alaba edo gehiagoko bikote ezkonduak.

a) Hiru seme-alaba edo gehiagoko izatezko bikoteak.

c) Hiru seme-alaba edo gehiagoko familia guraso bakarrek.

2. Bi seme-alabatik aurrerako familiak ugarizat joko dira baldin eta horietako batek ezgaitasun frogatu bat baldin badauka edo familiakide adindun arduradunetako edozeinek lan egiteko ezintasun osoa baldin badauka.”

3. Halaber, “familia ugari” kontzeptuaren barruan sartuko dira erditze multipleetan jaiotako bi seme-alaba edo gehiagoko ardurapean dauzkaten familiak.

Zioak: Asmoa da jatorrizko testuan agertzen den tratu diskriminatzaile eta arkaikoa zuzentzea, eta legearen testua errealitate soziologikora egokitzea, non aniztasuna agerikoa baita familia-unitateen osaketari dagokionez; izan ere, badaude

ezkon-bikoteak, sexu-aukera ezberdineko bikote egonkorak, alargun izateagatik, banandu edo dibortziatzeagatik arduradun bakarra daukaten familiak, familia berreraikiak eta erditze anizkoi-tzak izan dituztenak ere (erditze bikoitzetatik gorakoak).

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI **BEGOÑA ERRAZTI ESNAL** ANDREAK AURKEZTUA

2.2 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Haurretako batek minusbalioitasun bat baldin badauka, modu berezian tratatzen da, eta egoera hori 2. 1 b) artikulua jadanik aintzat hartzen du.

6. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2.1. artikuluko d) eta e) letrak kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nahiz eta familia ugariaren kontzeptuaren definizio orokorrago bat egin behar den, esparru izaerako lege baten bidez, kontua da gaur egun ez dagoela horrelakorik, nahiz eta izapidatzen ari den; horrela, bada, egokia dirudi hori arautzea, eta hori ez da eragozpen izanen geroago egokitzen egiteko. Baina, kendu nahi ditugun bi letrei dagokienez, gure ustea da araubide hori ez dela familia ugari buruzko foru lege batean ezarri behar, baizik eta deskribaturikoa bezalako egoerak babestu behar direla, baina beste esparru desberdin batean.

7. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI **MILAGROS RUBIO SALVATIERRA** ANDREAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Beste puntu bat gehituko da, hirugarrena, testu hau izanen duena:

“3. Halaber, familia ugarizat hartuko dira bikote egonkorrek osaturikoak, ezkon-bikoteen kasu beretan eta modu berean, eta ezkondu gabe egonik bikote iraunkor izatearen frogagiririk ez duten pertsonen osaturikoak, baldin eta euren ardurapean seme-alabak badituzte, alargunak diren edo

ezkondu ondoren legez edo egitatez bereizi diren pertsonen baldintza beretan.”

Zioak: Sexu-orientazioagatik edo hautatutako bikote-ereduagatik ez diskriminatzea. Halaber, ezkondua egon gabe eta bikote egonkorrik izan gabe ardurapean seme-alabak dauzkaten pertsonen osaturiko familiak aintzat hartzea.

8. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Beste puntu bat gehituko da, laugarrena, testu hau izanen duena:

“4. Era berean, lege honek ezartzen dituen laguntza eta abantailak aplikatuko dira aita, ama edo tutore bat 3 seme-alaba edo gehiagoren legezko arduraduna denean edo lehen aipaturiko baldintzak betetzen dituzenean, baina ardurapean dituen seme-alabak bikotekide ezberdinengandikoak direnean edo gerta litekeen beste edozein kasutan, hala nola adopzioak, lehenagoko bikotekide batengandik bereizi ondoren nork bere kasa seme edo alaba bat izatea (laguntza bidezko ugalketako tekniken edo bestelakoen bitartez), eta abar.”

Zioak: Legeak ezarritako seme-alaben kopuruari dagozkion baldintzak betetzen dituzten pertsonen kasuak aintzat hartzea, baita seme-alaba horiek bikotekide ezberdinengandikoak, adopzio bidezkoak edo nork bere kasa eta lehenagoko bikotekideekin zerikusirik izan gabe seme-alabak izateko bestelako moduen ondoriozkoak direnean ere.

9. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

Artikulu berri bat gehitzea 2. artikulua ondo-
ren. Hona testua:

“3. artikulua. Erditze anizkoitzak dituzten familiak

Hileroko laguntza ekonomikoak ezartzen dira, Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, erditze anizkoitzak dituzten familientzat, erditze horretan

jaiotako seme-alaben kopuruaren arabera, eta adin-tarteka.

a) Erditze bikoitzak dituzten familiak

0tik 3 urtera arte - seme-alaba bakoitzeko 125 euro hilabetean

4tik 12 urtera arte - seme-alaba bakoitzeko 100 euro hilabetean

12tik 21 urtera arte - seme-alaba bakoitzeko 75 euro hilabetean

b) Erditze hirukoitzak, lauikoitzak edo gehiagokoak dituzten familiak

0tik 3 urtera arte - seme-alaba bakoitzeko 150 euro hilabetean

4tik 12 urtera arte - seme-alaba bakoitzeko 125 euro hilabetean

13tik 21 urtera arte - seme-alaba bakoitzeko 100 euro hilabetean

Zioak: Beharrezkotzat jotzen da erditze anizkoitzak izan dituzten familientzako zuzeneko laguntza ekonomikoak ezartzea, ikusirik familia ugari horiek ez direla aintzat hartu nahi, jaiotza bikoitz, hirukoitz eta lauikoitzek gorantz egitearen ondorioz ustekabeko eragina dutelako; bereziki, erditze bikoitz eta hirukoitzek, populazioaren ugalkortasun-ezaren gorakada ere dela medio. Une honetan, Nafarroa urrun dago guk baino baliabide gutxiago dituzten Estatuko beste erkidego batzuek ematen dituzten laguntzetatik, eta ez da ulertzen zeren ondoriozkoa den babes-maila handitzera behartzen duen arazo hau ez onartzea.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

10. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

3 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa, zeren eta indarreko legediak, bai foru erkidegokoak bai Estatukoak ere, familia-babesa beti ematen baitio adingabeko edo adindun ezgaituak bere ardurapean dituen persona adindunari. Ildo horretatik, testua dagoen horretan uzteak nahasmena eragiten du arlo honetan. Izan ere, agintzen du ezen, adingabekoak edo adindun ezgaituak amaren edo aitaren kargura harekin bizitzeaz gain, haiek haren kontura bizi behar dutela. Bestalde, umezurtzen

kasuan, seme-alabetako bat familiaburuarekin parekatzea du asmo. Kontu horiek jadanik ezarriko tratamendu juridikoa daukate, eta, betiere, familia-epaileek ebazten dute gai horietan.

11. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposatzen den testua guztiz diskriminatzailea da, bai eta gaur egungo legediak aitorturiko gizon eta emakumeen eskubideen berdintasunaren printzipioaren aurkakoa ere.

12. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikuluko 2. lerrokada ordeztzeko zuzenketa. Lerrokada hori artikuluko idatz-zati bakar bihurtuko litzateke. Ondoko testua proposatzen da:

“Aitarik eta amarik ez dagoenean, lege honen ondorioetarako, halakotzat joko dira haien seme-alabak euren ardurapean dituzten eta beraiei elikagaiak ematen dizkieten pertsona edo pertsonak, eta familia ugarizat hartuko dira, betiere 1. artikuluko baldintzak betetzen badira”.

Zioak: Argitzea zein pertsona diren guraso gisa har daitezkeenak lege honen ondorioetarako, egiazko gurasorik ez dagoenean, eta lege honek ezartzen dituen prestazioak familia ugari gisa eskuratu ditzaketanak; betiere, baldintzak betetzen dituztenean.

13. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
ANDREAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

1. Lege honen ondorio guztietarako, familia burua aita edo ama izanen dira, bata zein bestea berdin. Legez edo egitatez bereiziz gero, ardurapean seme-alabak dituen ezkontidea izanen da.

Zioak: Asmoa da emakumea parekatzea, familia buru izatera iritsi ahal izan dadin.

14. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

3. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. idatz-zatia aldatzen da. Honako testu hau izanen luke:

1. Lege honen ondorioetarako, familia burua aita edo ama izanen dira, bata zein bestea berdin, eta, haien ezean, tutorea. Legez edo egitatez bereiziz gero, edo bikote egonkorra desegiten bada, seme-alabak ardurapean hartu dituen pertsona.”

Zioak: Diskriminatzailea da familia burua beti aita izan behar hori.

4. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

15. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua ordeztzeko zuzenketa.

“4. artikulua.

Familia ugaria legez izateko, seme-alabek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Ez kongabeak eta 21 urtetik beherakoak izatea edo, adinez zaharragoak izanez gero, ezgaituak izatea edo administrazio eskudunak lanerako ezintasun iraunkorra aitortua izatea.”

Zioak: Adin-mugari dagokionez guztiz abusuzkoak diren egoerak saihestea, bai eta legearen arabekoak ez diren beste batzuk ere, familia horiek jaso ditzaketan laguntzak eskuratu ahal izateko.

16. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikuluaren edukia ondokoa dioen beste batekin ordeztzea proposatzen dugu:

“Familia ugarietako seme-alabek foru lege honetako onurak eskuratu ahal izan ditzaten, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. 21 urtez beherakoak izatea, edo edozein adin baino zaharrago, baldin eta egiaztagiriz behar bezala frogaturiko ezgaitasuna badaukate.

2. Familia unitatearekin bizitzea eta ekonomiki haren menpekoak izatea.

3. Ikasketa arauturen bat egiten ari diren eta horren frogak aurkezten dituzten 21 urtez gorakoei adin-luzapen bat izanzen dute, 25 urtera arte.

Zioak: Zuhurra iruditzen zaigu 25 urtera bitarteko (adin hori barne) babes mugatu bat ezartzea, umezurtz pentsioetarako eta familia ugariaren titulu-erakunde ezarritako ildoari jarraikiz, eta Gizarte Segurantzak, Nafarroako Gobernuak eta erakunde publikoek egiten duten modu berean bizi arteko familia-babesa ezartzea minusbaliotasun-ziurtagiria edo ezgaitasunaren adierazpen judiziala daukaten seme-alabentzat.

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

4.1ean honako hitzek mugatzen duten tartea kentzea proposatzen da: “Adin muga hori 30 urtetara luzatuko da... emantzipatu ez direnen kasuak aurreikusiko dira”.

4.2an ken bedi “...immigrazioko legezko araubidean egotea...”.

Zioak: 30 urteko adinari buruzko proposamenarekin ez gaude ados, eta, bigarren kasuan, ez delako behar adina zehazten zein egoera sartzen diren kasu horretan.

18. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanzen luke:

“4.3.- Familiako buruarekiko mendekotasun ekonomikoa izatea. Erregelamendu bidez finkatuko da zenbaterainoko mendekotasuna eta familiaren errenta-maila.”

Zioak: Laguntzak ezin dira izan berberak guztientzat.

19. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MARINÉ PUEYO DANSO ANDREAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

4. artikuluko 3. idatz-zatiko d) letra aldatzea proposatzen da. Hona testu berria:

d) Familiako burua ez badago eta semeak edo alabak laguntzen badu familiaren mantenuan, erregelamenduz ezarriko diren kasu eta baldintzetan.

Zioak: Asmoa da emakumea familiako buru gisa aintzat hartzea, 3. artikulurako proposatzen den definizioari jarraikiz.

20. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. 2. idatz-zatia aldatzen da. Honako testu hau izanzen luke:

Kendu egingen da “legezko” hitza idatz-zatitik.

Zioak: Zehaztapen hori ez da beharrezkotzat jotzen.

21. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

4. artikulua aldatzeko zuzenketa. 3. puntuko kasuak aldatzen dira. Puntu horren testu berria hauxe litzateke:

a) Semeak edo alabak eskuratzen dituen diru-sarrerak 18 urtetik gorako langileentzat legez finantziaturiko lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5 baino handiagoak ez badira.

b) Semeak edo alabak lanerako ezintasuna badu eta haren pentsioaren zenbatekoa, pentsiorik egonez gero, lansari hori bider 1,5 baino handiagoa ez bada.

c) Familiako buruak eta bere ezkontide edo bikotekideak lanerako ezintasuna badu eta familiaren batez besteko errenta lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5 baino handiagoa ez bada.

d) Aita edo amarik ez badago eta semeak edo alabak laguntzen badu familiaren mantenuan,

erregelamenduz ezarriko diren kasu eta baldintzetan.

e) Familiako burua erretiraturik badago edo 65 urtetik gorakoa bada eta familiaren batez besteko errenta lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5 baino handiagoa ez bada.”

Zioak: Sexu-orientazioagatik edo hautatutako bikote-ereduagatik ez diskriminatzea. Halaber, ezkondua egon gabe eta bikote egonkorrik izan gabe ardurapean seme-alabak dauzkaten pertsonen osaturiko familiak aintzat hartzea.

5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

22. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Artikuluaren 1. idatz-zatiaren edukia ondokoa dion beste batekin ordeztzea proposatzen dugu:

“1. Familia ugariak bi kategoria bereizitan sailkatuko dira:

a) 1. kategoria

Hiru eta lau seme-alaba dituzten familiak.

Bi eta hiru seme-alaba dituzten familiak, haietako bat ezgaitua bada.

Erditze anizkoitzean jaiotako bi eta hiru seme-alaba dauzkaten familiak.

b) 2. kategoria.

Bost seme-alaba edo gehiago dituzten familiak.

Lau seme-alaba edo gehiago dituzten familiak, haietako bat ezgaitua bada.

Lau seme-alaba edo gehiago dituzten familiak, eta gutxienez haietatik bi erditze anizkoitz batean jaiok.

Zioak: Zentzuzkoagoa eta egungo errealitateari lotuagoa iruditzen zaigu familia ugarien bi kategoria izatea; izan ere, dinamika horrekin jarraituz gero, 4 kategoria ezar genitzake, 8 edo 10 seme-alaba edo are gehiago dituztenengan edo erditze laukoitzak dituzten familiengan pentsatuz.

23. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko (1. artikuluan kokatu beharko litzateke) zuzenketa. Hona testua:

“Foru lege honetako xedapenak Nafarroako familia ugarietara aplikatuko zaizkie, hurrengo artikuluetan adieraziriko irizpideen arabera.”

Zioak: Testuari koherentzia handiagoa ematen dio.

24. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

Artikuluko 2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Erditze anizkoitzak (bikoitzak, hirukoitzak, laukoitzak) dituzten familiak familia ugari gisa aintzat harturik daude 2 eta 5. artikuluei aurkezturiko zuzenketetan eta proposaturiko artikuluen berria.

25. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluen 2. lerrokada ordeztzeko zuzenketa. Honako testua proposatzen da:

“2. “Foru lege honetako xedapenak nafarrak diren edo Foru Komunitatean bizi diren familia guztiei aplikatuko zaizkie, baldin eta, gutxienez ere, 2 urteko antzinatasuna badaukate.”

Zioak: Nafarroako familientzat dauden laguntzak eskuratu ahal izateko foru administrazioak ezarritako irizpidea, egoitza bi urtez edukitzearena, mantentzea, eta erditze anizkoitzen aipamena kentzea, aztergai dugun legea ez baita familia horietara mugatzen.

26. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

5. artikuluko 3. idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Laguntzak eskuratu ahal izateko betekizunak erregelamenduz ezarri beharko dira; ez lege honen bitartez.

27. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa.

Artikuluko 3. idatz-zatiari beste bi letra berri gehitzea:

“c) Minusbaliotasun ziurtagiria edo ezgaitasunaren adierazpen judiziala, ezgaitasunen bat daukaten seme-alaben kasuan.

d) Ikasketen ziurtagiria, 21 urte baino zaharra- eta 25 urte baino gazteago direnen kasuan, ikasle-izaera frogatzen duena.”

Zioak: Zenbait betekizun gehitzea, horrela foru lege honen onurak eskuratu ahal izan ditzaten ikasten ari diren 21 urtez gorakoek, ezgaitasunen bat jasaten duten gazteago eta zaharragoek, eta eritasun, istripu edo ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensorial batengatik ezgaitasunaren adierazpena daukatenean.

28. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamen horrek ez dauka tokirik horrelako foru lege proposamen batean. Zuzendaritza nagusi bat eratzeko eskumena eta modua ez dagozkio horrelako testu bati, indarreko legediak ezarritakoaren arabera.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

29. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Balizko neurri batzuk ezartzen ditu, zehaztu gabe, eta oso diskriminatzaileak dira gainerako nafar herritarrekiko.

30. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

Artikuluko 2. idatz-zatia kentzea.

Zioak: Ikastetxea hautatzeko askatasuna Konstituzioak bermatzen duela jo ohi da, eta Nafarroa da irakaskuntza derrigorrezkoaren eta ez-derrigorrezkoaren doakotasuna ikastetxe pribatuaren %100ean eta, zer esanik ez, irakaskuntza publiko guztian jasangarria dela bermatzen duen erkidego bakarra, edo ez da hala?

31. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“Nafarroako Gobernuak, erregelamendu bidez, neurriak ezarriko ditu, lanbide arteko gutxieneko soldata baino per capita errenta handiagoa ez daukaten familia ugariarentzat haur hezkuntza eta 0tik 3 urtera bitartekoa doakoa izan dadila lortzeko, berdin delarik ikasketak horiek ikastetxe publikoetan edo itunpekoetan egiten diren.”

Zioak: Gure ustez, haur hezkuntza doakoa da jadanik ikastetxe publikoetan; hori dela-eta, laguntzak erabili beharko lirarteke soil-soilik dirusarrera apalak dituzten familiei, ugariak direla nahiz ez direla, ikastetxe publiko baten eta itunpeko baten arteko aukera egiten laguntzeko.

32. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu artikuluko lehen lerrokada honako hau: “...Nafarroako urteko batez beste per capita errentaren erdia baino gutxiagoko errenta duten...” ordez dadila beste honekin:

“lanbide arteko gutxieneko soldataren ehuneko hirurogeita hamabostaren pareko per capita errenta baino handiagorik ez duten...”

Zioak: Asmoa da familia ugari guztientzako gizarte-babesa hobetzea, eta errentarik apalenak dauzkaten edo ahulezia handieneko egoeran dauden familiei lehentasuna ematea zuzeneko zerbitzuak eta laguntzak ematerakoan.

33. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikuluko 2. idatz-zatiari gehiketa egiteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

Sistema bat ezarriko da familia ugarietara ikastetxea aukeratzea errazteko, euren egoitzarekiko edo gurasoen lantokiarekiko hurbiltasunaren araberako, deskontuak eta laguntzak...

Zioak: Proposatutako testua hobetu egiten du.

8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

34. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

8 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Familia ugariak jadanik aintzat harturik daude, arlo ezberdinetako laguntzei dagokienez, Parlamentu honek onetsirik Familiari laguntzeko departamentu arteko planean.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluari gehiketa egiteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

Artikuluaren amaieran testu hau gehitzea proposatzen da: "Familiaren errenta-mailaren arabera".

Zioak: Proposatutako testua hobetu egiten du.

9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

36. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

9 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ildo beretik aurkezturiko gainerako zuzenketekin koherenteak izatearren.

10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

37. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. "Hobari" hitzaren ordean "deskontu" ipintzea proposatzen da.

Zioak: Deskontuak gehiago egokitzen zaizkio legearen izpirituari hobariak baino.

11. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

38. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

11. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

"11. artikulua.

Garraio publikoaren eta eskolakoaren erabilerran hobariak ezarriko dira Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan garatzen diren familia ugarietako kideen alde."

Zioak: Laguntzak garraio publikora ere hedatzea.

**12. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

39. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

12. artikuluan kenketa egiteko zuzenketa.

Honako hau kentzea proposatzen da: "...Nafarroako Gobernuak lehenbiziko hiru urteetan familia ugarietako ematea arautuko du, esnea, ahiak, eta oinarritzko produktuak, hala nola, kotxeak, sehaskak eta haur oihalak erosteko."

Zioak: Laguntzak jadanik aintzat harturik daude Familiari laguntzeko departamentu arteko planean.

40. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

12. artikuluari kenketa egiteko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

Honakoa kentzea proposatzen da: "...Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren bitartez..."

Eta "...zuzenak eta zeharkakoak..."

Zioak: Desegokia iruditzen zaigu NGOI espresuki aipatzea, zeren eta, Nafarroako Gobernuaren eskumena izanik, espresuki adierazten den bezalaxe, horrexek erabakiko baitu, eta litekeena da departamentu ezberdinei egokitzea: Osasuna, Gizarte Ongizatea eta abar. Proposatutako testua hobetu egiten du, gainera.

**13. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

41. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

13. artikuluko bigarren idatz-zatia kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da bidezkoa horrelako neurriak lege honetan arautzea, baizik eta bestelako lege-baliabide batzuen bitartez.

42. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

13. artikulua aldatzeko zuzenketa. Lehen lerrokadako testu hau kentzea proposatzen da:

"Familia ugarietako lehenbiziko hiru urteetan familia ugarietako ematea arautuko du, esnea, ahiak, eta oinarritzko produktuak, hala nola, kotxeak, sehaskak eta haur oihalak erosteko."

Zioak: Diskriminatzailetzat hartzea. Pertsona eta familiei euren familiaren per capita errentaren edo euren per capita errenta pertsonalaren arabera esleitu behar zaizkie.

**14. ARTIKULUARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

43. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

14. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Neurri hori guztiz diskriminatzailea eta abusuzkoa da gainerako langileekiko.

44. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

14. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Konstituzioaren aurkakoa izan daiteke, lanpostu publikoei dagokienez, eta baita enpresa pribatuetako lanpostuei dagokienez ere, non gaitasuna, lanbide-erperientzia eta ikasketak laguntza eta zerbitzu sozial publikoen arlokoak diren beste lehenbiziko batzuen azpian gelditzen baitira. Lan-esparruari arrotzak zaizkion gaiak nahasturik agertzen dira.

45. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

14. artikulua aldatzeko zuzenketa. Testu hau izanen luke:

“14. artikulua.

Familia ugarietako aitak edo amak kontratazen dituzten enpresei zerga hobariak emanen zaizkie, bereziki horiek langabezia badaude.”

Zioak: Gainerako neurriei diskriminatzaile deritzegu, halaber beharra daukaten beste pertsona batzuekiko.

15. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

46. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

15. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulua guztiz diskriminatzailea da gainerako langileekiko.

47. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Konstituzioaren aurkakoa izan daiteke, lanpostu publikoei dagokienez, eta baita enpresa pribatuetakoa lanpostuei dagokienez ere, non gaitasuna, lanbide-esperientzia eta ikasketak laguntza eta zerbitzu sozial publikoen arlokoak diren beste lehentasun batzuen azpian gelditzen baitira.

48. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Lehen lerrokada kentzea.

Zioak: Gainerako neurriei diskriminatzaile deritzegu, halaber beharra daukaten beste pertsona batzuekiko.

16 ETA 17. ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

49. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

16 eta 17. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Nafarroak ez dauka eskumenik gai horiek arautzeko.

50. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

16. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Artikulu horretan aipaturiko neurriak foru-arau ezberdinetan arauturik daude.

51. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

17. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Lanaldia arautzea ez dago sarturik foru lege baten eskumen-esparruan.

18. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

52. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

18.1. artikulua ordeztzeko zuzenketa.

Proposatzen da “Familia ugariaren familiako buruak edo gainerako kideek...” ordezteko honako honekin: “Lege honen onuradunek...”.

Zioak: Terminologia aurkezturiko zuzenketei egokitzea.

**XEDAPEN GEHIGARRIARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

53. ZUZENKETA

**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria kentzeko zuzenketa.

Zioak: Proposamen horrek ez dauka tokirik horrelako foru lege proposamen batean. Zuzendaritza nagusi bat eratzeko eskumena eta modua ez dagozkio horrelako testu bati, indarreko legediak ezarritakoaren arabera.

54. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Foru lege honetan bildutako neurriak garatzeko, Nafarroako Gobernuak kontuan hartuko ditu, familia ugarien seme-alaben kopurua eta per capita errentaz gain, beste inguruabar batzuk ere, hala nola familia-unitateko edozein kideren ezgaitasuna eta familia behartsuen ahulezia-egoera.

Zioak: Zuzeneko eta zeharkako laguntzen eta zerbitzu publikoen bidezko birbanaketa orekatzea, ahulezia-egoeran dauden familia behartsuek onurak jaso ditzaten, eta ez dadin gerta erdietsi nahi ez den ondorioa; alegia, ikuspegi sozioekonomikotik egoera onenean daudenei, hain zuzen ere, mesede egitea.

55. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Bigarren xedapen gehigarria.

“8, 9, 10, 11 eta 12. artikuluetan aipaturiko laguntza eta hobarien zenbatekoa arautuko da familiaren per capita errentarekiko proportzioan, eta lanbide arteko gutxieneko soldata baino per capita errenta handiagoa daukaten familiak ez dira onuradun izanen.”

Zioak: Gainerako neurriei diskriminatzaile deritzegu, halaber beharra daukaten beste pertsona batzuekiko.

**XEDAPEN IRAGANKORRARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK**

56. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen iragankorra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Tramite hori jadanik egina dago, eta gainera, familia ugarietako erakunde-laguntza ematekotan, eman behar zaie fiskalitatea gaituz, zuzeneko laguntza ekonomikoetan eta zerbitzu publikoetan gauzaturik, familiaren babesa lehen seme edo alabatik hasita ahalbidetzeko. Hain zuzen ere, hori dela medio lortu da, Europako beste herri batzuetan, lehenagoko jaiotza-tasetara iristea eta baita horiek gaituz ere.

57. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen iragankorra aldatzeko zuzenketa. Bukaeran ondokoa gehituko da:

“, familiaren per capita errenta kontuan harturik.”

Zioak: Gainerako neurriei diskriminatzaile deritzegu, halaber beharra daukaten beste pertsona batzuekiko.

58. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MILAGROS RUBIO SALVATIERRA
ANDREAK AURKEZTUA

Beste xedapen iragankor bat gehitzeko zuzenketa. Hauxe da:

“Nafarroako Gobernuak lege proiektu bat igorriko dio Nafarroako Parlamentuari, eta proiektu horretan jasoko dira lege honetan bilduriko neurrien antzeko batzuk, baina lanbide arteko gutxieneko soldata baino per capita errenta txikiagoa daukaten familia eta pertsonen laguntzeko bideratuak.”

Zioak: Badaude zenbait gai, hala nola etxebizitzaren tamaina, edo familia eta lan bizitza bateragarriak egitea, non familia ugariak beharizan bereziak baitituzte, gainerako pertsona eta familiek dituztenez gain. Dena den, diskriminatzailea da laguntza edo hobari ekonomikoak ematea per capita errenta ertain edo altua daukaten eta, edozein kasutan, baliabide urriko edo per capita errenta txikiagoko beste familia batzuek baino errenta handiagoa daukaten familia ugari; izan ere, haientzat ez da inolako laguntza edo hobarik jasotzen lege honetan.

AZKEN XEDAPENEI
AURKEZTURIKO ZUZENKETA

59. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria: "Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra".

Zioak: Begi-bistako arrazoiak direla-eta, lege proposamenean xedatzen den indar-hartzea ezinezkoa da. Horregatik, egokiagozat jotzen dugu indarra hartzeko egun zehatzik ezartzen ez duen azken xedapen bat.

ZIOEN AZALPENARI
AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

60. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
BEGOÑA ERRAZTI ESNAL
ANDREAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

"Administrazio publikoek babeseta eta laguntza eman behar diete familia ugari, gizartearen osagai diren aldetik, eta gizarteari helarazten dioten giza kapitala kontuan harturik."

Nafarroako Parlamentuak 2002an onetsi zuen familiari laguntzeko departamentu arteko plana, familia ugarien ezaugarri bereziak lege bidez arautzeko premia aurreikusten duena.

Nafarroan familia ugarien 7.500 titulu inguru daude, eta lege honen bidez erantzun bat eman

nahi zaie horiei. Helburua da gai zehatzetan Nafarroako gizartearen laguntza helaraztea, familia horientzat baldintza hobekak lortzeko.

Helburu horiek lortzeko asmoz, honako testu hau proposatzen dugu:"

Zioak: Testu egokiagoa.

61. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari kenketa egiteko zuzenketa. Laugarren lerrokadan azken esaldia kentzea, hau da:

"Hau da, zenbat eta seme-alaba gehiago orduan eta betebeharrak pertsonal eta sozial gehiago eta beraz, eskubide sozial gehiago ere."

Zioak: Ez dadila gerta politikoki eta sozialki ulertzea eskubide eta betebeharrak zerikusia dutela familia batek edukitzea erabakitzen duen seme-alaba kopuruarekin. Babestu beharra berezkoa dute familia guztiek. Konstituzioak ez zuen familia-eredurik definitu, eta eskubide nahiz betebeharrak ere ez zituen seme-alaba kopuruaren arabera gehitu edo murriztu. Alabaina, inguruabar pertsonalen ondorioz zenbait zama, hala nola ezgaitasuna, jasaten duten pertsona batzuentzako babes berezia ziurtatu zuen, eta, horrez gain, arduratu zen ezkontzatik kanpo jaiotako seme-alaben familia-babesa ezkontza barnekoek dutenarekin parekatzeaz.

62. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko esaldi bat kentzeko zuzenketa. Laugarren lerrokadako azken esaldia kentzea proposatzen da; alegia, horrela hasten dena: "Hau da, zenbat eta seme-alaba gehiago...", bukaeraraino.

Zioak: Egokiagoa iruditzen zaigu, foru lege proposamenaren xedea gogoan izanik.

63. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa. Zioen azalpeneko seigarren, zazpigarren eta zortzigarren lerrokadak kentzea.

Zioak: Seigarren, zazpigarren eta zortzigarren lerrokadek familia-babesaren ikusmolde kapitalista bat agertzen dute. Seigarren lerrokadak aipatzen ditu giza kapitalean inbertitzea, kontsumoa eta aberastasuna, eta termino horiek zazpigarren lerrokadan errepikatzen dira, esaten duenean giza kapitalean inbertitzen ez duen gizartea erabateko porrotera bidean doala. Bi lerrokada horiek agertzen duten ikuspegi politiko natalistak, gure iritziz, eskua sartzen du norbanakoaren askatasunen eremuan, eta IUN/NEBen nahia da hori babestea. Pertsona bakoitzak eta familia bakoitzak askatasunez erabaki ahal izan dezala seme-alabak izan ala ez izan, noiz izan eta zenbat izan. Zortzigarren lerrokadak familia ugariaren ikusmolde murriztaillea agertzen du. Ez dago soilik ezkontidez osaturik. Alegia, kopuru nabarmena egiten dute guraso bakarreko familiek, izatezko bikoteek, seme-alabak dauzkaten aita eta ama alargunek. Eta familia-eredu horiek guztiek familia ugariaren titulua izateko eskubidea aitortua daukate.

64. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari kenketa egiteko zuzenketa. Zioen azalpeneko hamaseigarren lerrokada kentzea proposatzen da.

Zioak: Aurreko zuzenketen zioetan aipaturiko argudioak daude tartean. Zenbat eta seme-alaba gehiago, orduan eta ekarpen handiagoa eginen diote Nafarroako gizartea eusteari: "Nafarroako familia ugariaren seme-alabek ia lau aldiz gehiago

lagunduko dutela Nafarroako gizarteari eusten". Mundu globalizatu batean, non sakabanaketa geografikoa eguneroko ogia baita biztanle gehien-gehienentzat, gure seme-alabak Nafarroan betiko geldituko direla pentsatzea ilusio hutsa da. Mugikortasuna errealitate iraunkorra da azken hamarkadotan. Bestalde, ez da ahaztu behar atzerriko etorkinek neurri handian bermatzen dutela jasangarritasun ekonomiko eta demografikoa. Jaiotzataso oso baxuak izandako herrialdeek beste garai batzuetan aurrera egin ahal izan dute, hain zuzen ere, atzerriko etorkinei esker, eta horien bidez ere bertako biztanleriak bultzada izan du.

65. ZUZENKETA**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
NAFARROAKO EZKER BATUA**
PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa.

Lerrokada bat gehitzea proposatzen da. Eduki hau izanen luke:

"Familien babes sozial, ekonomiko eta juridikoaren arloan beharrezkoa da botere publikoek familia ugariaren babes-mailan funtsezko hobekuntzak ezartzea, laguntza eta zerbitzuak lehentasunez bideratuz zailtasun edo ahulezia larriena pairatzen duten familiei, hala nola: erditze anizkoitzetan jaiotako seme-alabak, familia-unitatearen askatasun ekonomikorik eza, familiako edozein kideren ezgaitasun frogatua, edo familia, gizarte eta kultura esparruetan urritasunak izatea suertatzen bada."

Zioak: Asmoa da familia-babesaren esparruan aurrerapausoak ematea, halako moldez non gizarte-justiziako irizpideekin jardunen baita, lehentasuna emanaz zailtasun handieneko eta are ahuleziako egoerei, berdintasunezko gizarte baterantz joateko, non ez baita errepikatuko gure gizartean egoera onenean dauden familia-unitatei errenta eta prestazio publikoak helaraztearen fenomeno.

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamenari egin zaizkion zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2002ko irailaren 9ko 86. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko abenduaren 23an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO ZUZENKETA

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Xedea.

Artikuluaren edukia ondokoa dion beste batekin ordeztzea:

“1. Laguntza osagarri bat ezarriko da, eskastan ekonomikoko egoerak arintzeko bideratua, lanbide arteko gutxieneko soldata (LAGS) baino alargun pentsio baxuagoak jasotzen dituzten pertsonen oinarrizko beharriaz erantzuteko. Laguntza horren zenbatekoa izanen da honakoan artean dagoen aldea: LAGSaren ehuneko ehun, batetik, eta alargun pentsioetatik dagokien kopurua gehi Gizarte Segurantzaren kargura doan gutxienekoen osagarria, bestetik.

2. Dirulaguntza horren helburua da alargun pentsioen titular diren pertsonak pairatzen duten behar adinako dirusarrerarik eza gainditzeko modua ematea, biziraupenerako gutxieneko bat bermatzeko eta gizartearen baitako nahiz eskualdeen arteko desorekak zelaizteko; beraz, beharrezkoa izanen da Nafarroako forupekoaren izaera zibila izatea eta alde zehatzetik Foru Komunitatean gutxienez hiru urtez errotuta egotea.

Zioak: Hasierako testua hobetzea, Biltzarreko txosten juridikoaren edukia barneratuz, argi uzteko arautzen ari garena direla pentsioa gehi osagarriaren eta LAGSa adinako zenbatekoaren

arteko aldea betetzeko dirulaguntzak. Argi uztea eskastan ekonomikoaren ondoriozko beharriaz arintzeko bideratzen direla, bizirauteko gutxienekoen aurre egin ahal izateko, zeinak guttiz babesten baititu Espainiako Konstituzioko 41. artikulua. Artikulu horrek dioenez, “laguntza-ematea eta prestazio osagarriak doakoak izanen dira”. Artikulu horrek joera nabarmena agertzen du laguntza-ematearen alde, eta botere publikoari esleitzen die, botere horiek zein izan daitezkeen alde zehatzetik zehatz gabe, herritarrek beharriaz-egoeren aurrean babeste-ko eginkizuna.

XEDAPEN GEHIGARRIEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen gehigarria aldatzeko zuzenketa.

Xedapen gehigarriaren edukiaren ordezkari honako testu hau ipintzea:

“Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentu edo Gorteei aurkeztuko die, foru lege hau onesten denetik gehienez ere bi hilabeteko epean, kotizaziopeko pentsioak, kotizazio gabekoak eta asistentzialak jasotzen dituzten pertsonen buruzko txosten sektorial bat, dirulaguntza osagarriak emateko xedez, dauden desoreka sozioekonomikoak eta foru legeak bilatzen ez dituen bidegabekeriak zuzentzeko”.

Zioak: Asmoa da errealitatean lortu nahi dena legean zehaztea. Zein gizarte-talderi buruzko txostena lortu nahi den, txosten hori aurkeztu behar zaion, epe laburtzea eta zenbatzen hastea lege hau Biltzarrak onesten duen unetik, Gobernuak eduki asko ezagutzen baititu, hilabetero, datuak.

3. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du:

Gehienez ere hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak lege proiektu bat bidaliko du Nafarroako Parlamentura, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa, lanbide arteko gutxieneko soldataren %100ekin parekatzeko oinarrizko errentaren zenbatekoa, eta 65 urtez gorako pertsonen oinarrizko errenta jasotzea ahalbidetzeko.

Zioak: Lortu nahi da ahalik eta denbora epe laburrenean neurriak har daitezela, baliabide horren beharrean dauden herritar guztiak aintzat hartuko dituztenak. Gogoratu behar da oinarrizko errenta sortu zela herritar guztiei bermatzeko herritar gisa dagozkien eskubideen gozamina. Alabaina, agerian geratu da ezen gaur egungo zenbatekoa eta legeak aurreikusten dituen hartzaile potentzialak mantentzea ez dela nahikoa, argi eta garbi, nafar herritarrei halakotzat dagozkien eskubideen gozamen erabatekoa —hots, legeko funtsezko printzipioa— bermatzeko.

Diskriminazioak saihesteko modu bakarra da beharrean dauden pertsona guztiek oinarrizko errenta eskuratu ahal izatea, edonolako pentsio-hartzaileak direla nahiz, pentsio-hartzaile ez izanik, behar adinako baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak direla. Foru lege proposamenak arautu nahi duen neurria egokia da baldin eta iragankortzat hartzen bada. Behin betikoa izatekoa balitz, beste giza talde batzuen beste egoera batzuei aurre egin gabe, administrazioak eginiko diskriminazio bat litzateke.

4. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-
 NAFARROAKO EZKER BATUA**
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea, testu hau duena:

Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartzen duenetik aitzina hiru hilabeteko epean gehienez ere, Nafarroako Parlamentu edo Gortetara igorriko du Eskubide sozialen gutun baterako

apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko foru lege proiektu bat, 65 urtetik gorako pertsonen eta kotizazio gabeko pentsioen eta pentsio asistentzialen hartzaileek prestazio ekonomiko osagarri eta subsidiario bat jasotzeko eskubidea aitortua izan dezaten, halako moldez non pentsio horien eta laguntza osagarriaren batura hilabetero izan dadin unean uneko lanbide arteko gutxieneko soldata indardunaren zenbatekoa adinakoa.

Zioak: Helburua da Eskubide sozialen gutuna aldatzeko agindua ezartzea, aintzat hartuak izan daitezzen 65 urtez gorako pertsonak, beste autonomia erkidego batzuek egin bezala; halaber, oinarrizko errenta gainerako pentsio-hartzaileei hedatzea, prestazio osagarri gisa eta desberdintasun sozioekonomikoak nahiz eskualdeen artekoak gainditzeko. Bizitzeko oinarrizko beharrezko erantzutea eragozten duena ez da alarguntasuna, minusbaliantasuna edo bestelako baldintzarik, baidik eta indarreko pentsioetako batzuen urritasun gorria.

5. ZUZENKETA

FORU PARLAMENTARI
MARINÉ PUEYO DANSO
 ANDREAK AURKEZTUA

Gehiketa egiteko zuzenketa.

Xedapen gehigarri berri bat gehitzea proposatzen da. Testu hau izanen du:

Legeak indarra hartu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak lege honen edukia ezagutarazteko kanpaina zabal bati ekinen dio, alargun pentsio bat jasotzen duten pertsona guztiei pertsonalki zuzenduz.

Zioak: Legea onetsi ondoren, beharrezkoa da alargun pentsioak jasotzen dituzten pertsonen behar bezala jakinaraztea, pertsonalki, zer-nolako esparru berritan koka daitezkeen. Helburua da administrazioak jarrera aktiboa hartzea, ez baitugu ezer lortuko legea onetsi ondoren balizko onuradunek laguntza horiek eskuratzen ez baldin badituzte lege horren berri ez izateagatik.

ZIOEN AZALPENARI
 AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA
 PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

ZIOEN AZALPENA

Espainiako Konstituzioak ezartzen duenez, botere publikoen betebeharra da gizarte laguntzako araubide bat mantentzea, beharizan egoeretan prestazio aski berrmatuko duena. Betebehar hori dela-eta, Espainiako eskualdeetan dauden gizarte desorekak konpentsatu behar dira, bizitzaren kostua batetik bestera aldatzen dela kontuan izanik. Horregatik eskualdeen arteko desoreka hori zuzendu beharra dago, eta metodo orokor eta uniforme bidez konpontzen ez diren desberdintasun-egoerei irtenbide bat eman behar zaie.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.17 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak gizarte laguntzaren arloan eskumen osoa bereganatua du. Arau horretan oinarriturik, Nafarroako Parlamentuak Gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zuen.

Foru lege horrek xedatzen du Nafarroako Gobernuaren eskumenekoak direla Nafarroako foru zuzenbidepeko herritarren gizarte-ongizatea neurririk handienez sustatzea xedetzat duten gizarte ekintza eta zerbitzuak, eta, halaber, adierazten du gizarte ongizatearen helbururantz joko dela gizarte ekintzako sistema orokor baten bitartez, zeina nortasunaren garapen duinerako beharrezkoak diren zerbitzu, bitarteko eta laguntzako pertsona, talde eta erkidegoen eskueran jartzera bideratua egonen baita.

Gizarte-ekintza da gizarte-babesaren hirugarren graduko mota bat, ordezkia, Gizarte Segurantzak dituen kotizaziopeko eta kotizazio gabeko atalek ematen duten babes kaskarretik at suertatzen diren babes-hutsuneak estaltzekoa; osagarria ere izan daiteke, hau da, Gizarte Segurantzatik heldutako prestazioak, batzuetan apalak, hobetzekoa.

Nafarroako Foru Komunitateko alargunen egoerari aurre egiteko ezar daitezkeen laguntza ekonomikoaren muga dira Espainiako Konstituzioak Estatuari esleitzen dizkion eskumen eksklusiboak, hala nola Gizarte Segurantzaren oinarritzko legedia eta araubide ekonomikoa.

Beraz, foru lege honek arautzen duena da Gizarte Segurantzaren sisteman Estatuak arauturikoez bestelako laguntza ekonomikoak jasotzea; hain zuzen, jasotzen hasten dira Estatuaren babesa amaitzen den puntutik aurrera. Arauketa horrek ez ditu aldatzen alargun pentsioak jasotzeko eskaturiko baldintzak, ez eta pentsioen zenbatekoa ere; horrela, bada, oinarritzko legediaren gain Estuuri gordetzen zaion eskumen eksklusiboa ez

da zapaltzen, eta Gizarte Segurantzaren sistema-ko aurrekontu-batasunaren printzipioa ere ez da urratzen.

Ondorioz, foru lege honek proposatzen du Gizarte Segurantzako prestazio baten osagarria izanen den laguntza bat ezar dadila, Gizarte Segurantzarenak ez diren funtsetatik ordaindua; beraz, bertako kutxa bakarra ez da hausten, eta bertako araubide ekonomikoak ere ez du esku-sartzerik pairatzen.

Horixe izan da Nafarroako Foru Komunitatearen jokabidea; hain zuzen, abenduaren 24ko 20/1991 Foru Legearen bitartez ez-ohiko kreditu bat gaitu zen, kontribuzio gabeko pentsioen hartzaileentzat osagarri bat ezartzeko. Ez lege hori, ez bera betearazteko emandako kasuan kasuko xedapenak, ez dira Konstituzio Auzitegian inpugnatu.

Asmoa ez da, hortaz, Gizarte Segurantzaren aplikazio-eremua hedatu edo osatzea, baizik eta pertsona-talde baten egoera aintzat hartzea. Talde horrek ezaugarri jakin batzuk ditu, zehatzak eta errepikaezinak.

Neurri horiek sistemaren babespetik kanpo gelditzen diren taldeek sentituriko beharizan-egoera berezietarako babes-mekanismo gisa agertzen dira, Gizarte Segurantzarenak ez bezalako teknikak erabiltzen dituzte, kontribuzio-betebehar orotik at eusten zaie, edo hartzaile nahiz onuradunen aurretiazko lankidetzak ekonomikoa tartean dagoela, eta ez dira Gizarte Segurantzaren aplikazio-eremua hedatu edo osatzea xede duten neurriak, baizik eta neurri orokorrak dira, Nafarroako Foru Komunitateko bizitzaren, prezioen eta inflazioaren maila altuaren ondorioz ageriko beharizan-egoeran dagoen biztanle-sektore zehatz bati zuzenduak.

Zioak: Zioen azalpena foru legearen izpiritura egokitzen dute.

7. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko zuzenketa.

Azken lerrokada ondokoa dioen beste batekin ordezte:

“Azken bi urteotan, Nafarroako Parlamentuak, erabaki eta adierazpen politikoen bidez, bere iritzia eman du alargun pentsioak aldatzearen alde, bidezkoagoak eta berdintasun handiagoak izan

daitezen, bai eta berriazko neurriak ezartzearen alde, aldi baterako eta behin-behinekoz, alargun pentsioak jasotzen dituzten pertsonen beharrian ekonomiko eta sozialei erantzuteko.

Foru lege honen xedea da gutxieneko alargun pentsio batzuen zenbatekoaren eskastasunak eragindako beharrian ekonomikoko egoerak arintzea; izan ere, pentsio horiek jasotzen dituztenek ezin izaten diete eguneroko bizitzako oinarrizko beharriaz aurre egin. Horrela, bada, Foru Komunitatean ezar daitezkeen laguntza edo osagarriak sartzen dira Espainiako Konstituzioko 41. artikulua xedaturikoan, zeinak ezartzen baitu laguntza-ematea eta prestazio osagarriak doakoak izan direla.”

Zioak: Asmoa da testua hobetzea eta funtsezko gaian zertxobait gehiago sakontzea; hau da, irtenbide posibleak ematea, Konstituzio Auzitegiak Andaluziako Juntaren 284/1998 eta 61/1999 Dekretuei buruz berriki emandako argudioen bidez ordenamendu juridikoan guztiz definituak. Dekretu horiek pentsiodunentzako laguntza ekonomiko osagarri buruzkoak dira, eta auzi horretan Konstituzio Auzitegiak Andaluziari arrazoia eman dio eta Estatuko Gobernuak aurkezturiko errekursoaren aurka egin du.

8. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari gehiketa egiteko zuzenketa.

Beste lerrokada bat gehitzea Nafarroako Gizarte Bazterkeriaren aurkako Plana aipatzen duen hirugarren lerrokadaren aurretik. Hona testua:

“Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak aldarrikatzen du Nafarroako herritarrek oinarrizko errenta izan dezatela, dituzten eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten. Legearen artikuluetan, oinarrizko errenta horren zenbatekoa eta jasotzen dutenen betebeharrak ezartzen dira.”

Zioak: Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko 23/2002 Foru Legeko zioen azalpenean dagoen lerrokada hori berreskuratzea. Beharrezko deritzogu lerrokada hori foru lege honetan txertatua egoteari, zeren eta gutun hori aldatzeko gure zuzenketetako beste bati oinarri ematen baitio. Zuzenketa horrek bilatzen du laguntza horiek gizarte-laguntzaren esparruan kokatzea, dauden eskumenei hobeto egokitzen baitzaizkie.

G SAILA:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiko erabakia. Horren bidez, Parlamentuko taldeei laguntzaileak ematen zaizkie

Nafarroako Parlamentuko Mahaia, 2002ko abenduaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Mahaia 2002ko azaroaren 19an hartutako erabakia betez Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak txostena egin du.

Parlamentu jardueraren garapena handia izan denez, foru parlamentarien eta haiek antolatuta dauden Parlamentuko taldeen lana erraztu eta lagundu egin behar da, jarduera horretan zuzen aritzeko behar diren bitarteko material eta pertsonalak emanaz.

Aurrekoak ikusi eta kontuan hartuta, Erregelamenduaren 35.1 artikulua araberaz, ERABAKI DUGU:

1go. Parlamentuko taldeei laguntzaile bat ematea hamar foru parlamentari bakoitzeko edo zenbateko horren zatikiko.

2gn. Parlamentuko talde bakoitzeko laguntzaileak Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izendatuko ditu, kasuan kasuko eledunak proposatuta; haien araubide juridikoa Nafarroako Parlamentuko langileen estatutuko 3. artikuluan aurreikusitakoa izanen da.

Askotariko Taldearen kasuan, kide guztiek proposatutako laguntzailea izendatuko da. Hogei egunen buruan proposamen hori egin ezean, talde horretako kide gehienek proposatutakoa izendatuko da.

3gn. Nafarroako Parlamentuaren hurrengo plantilla organikoan "Parlamentuko taldeen laguntzaileak" aldi baterako plazen aurreikuspena sartzea, aurreko idatz-zatian xedatuaren ondorioz. Erabaki honek plantilla organiko hori argitaratzen denetik izanen du indarra.

4gn. Hurrengo plantilla organikotik aurrera "Hautetsien idazkaria" postua "Mahaiko kideen idazkari" bihurtzea, haren aldi baterako langile izareri eutsirik.

5gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta ondokoei jakinaraztea: Parlamentuko taldeen eledunei, legelari nagusiari, Zerbitzu Orokorretako buruari eta Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruari.

Iruñean, 2002ko abenduaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko urrian egindako bilerak**MAHAIA**

4 eta 15ean.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

7, 14, 21 eta 28an.

OSOKO BILKURA

3 eta 4an:

– Foru Komunitatearen egoerari buruz Nafarroako Gobernuak egindako komunikazioa eztabaidatzea.

10ean:

– Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Errazti andreak, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Rubio Salvatierra andreak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak eta Arroyo Leache jaunak aurkeztu dituzte.

– Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena erretiratzea. Proposamena, Osoko Bilkurak 2002ko maiatzaren 9an aintzat hartua, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu zuen.

– Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailearen 11ko 4/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Nafarroako Parlamenturako hauteskondeak arautzeko buruzko azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 22/1998 Foru Legealdatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Proposamena José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztu du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ordenagailuak erosteko dirulaguntzetarako deialdia onetsi dezan.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan.

– Errazti Esnal andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du landa inguruneke emakumei buruzko ekintza plana taxutzera.

23an:

– Tabakoaren aurrean gaixotasunei aurrea hartu eta osasuna bultzatu eta babesteko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa eztabaidatu eta bozkatzea. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Toki esparruko herri kontsultei buruzko Foru Lege proposamenari buruz Toki Administrazioeko Batzordeak eginiko irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako 2003-2006 eperako estatistika planari buruzko foru lege proiektuari buruz Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak eginiko irizpena.

– Familia ugarietarako Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Alargun pentsioetarako laguntza berezietarako Foru Lege proposamena aintzat hartzea, hala erabakiz gero. Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu du.

– Barrena Arza jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren kalitatezko eskaintza bat bermatzea, horretarako Hizkuntza Eskola Ofizialari behar diren bitartekoak emanez.

– Barrena Arza jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Idaho (AEB) Estatuko ordezkariak gure erkidegoa bisitatzerako gonbidatzen ditu.

– Barrena Arza jaunak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak salatzen du Unibertsitateei buruzko Legea haren borondatearen aurka inposatu izana.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

1ean:

– Lan bilera. Bertan, Oitiko 3. urterako bitarteko haurren hezkuntzaren aldeko Plataforma bere proposamenak azalduko ditu.

– Lan bilera. Bertan, ondoko taldeak agertuko dira Kalitatearen Legeari buruz informatzeko: Institutuko Zuzendarien Elkarte (API), Teknologia irakasleen Elkarte (APTENA), FETE-UGT eta Langileen Komizioak.

2an:

– Lan bilera. Bertan, ondoko kolektiboak agertuko dira Kalitatearen Legeaz informatzeko: Herrikoa, ELA-STV eta LAB.

– Lan bilera. Bertan, ondoko kolektiboak agertuko dira Kalitatearen Legeaz informatzeko: Ikastolen Federazioa eta Sortzen.

8an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerrialdia, Eledunen Batzarrak eskatuta, departamentuaren egitura organiko berriari buruz informatzeko.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabai-

datu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren Kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik erlijioaren oinarriko irakaskuntzaren nahitaezko arloa kenduz.

18an:

– Lan bilera. Bertan, Sortzen-Ikasbatuaz kolektiboko ordezkariak lanbide heziketa euskaraz ikasi nahi duten ikasleei buruzko inkesta bati buruz informatu dezaten.

22an:

– Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo, eta Hezkuntza eta Kultura Batzordeen lan bilera. Bertan, Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Iturriagagoitia Ripoll andreak Baluartearen eraikitzearen obraren ekoizpenari buruz informatuko du, eta lan bilera bukatutakoan bisita egingen da Baluartera.

24 eta 29an:

– Nafarroako liburutegiaren sistema arautzeko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzeko.

29an:

– Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren agerrialdia, Eledunen Batzarrak eskatuta, irakaskuntza itunduko irakasleen artean lan orduak berdintzeko analogia prozesu bati ekitearen aplikazioari buruzko informazioa eman dezaten.

– Pueyo Danso andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak hartzerako ikastetxe publikoek aukeren berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuko duen kalitatezko irakaskuntza bat eskaini ahal izan dezaten.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

1ean:

– Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak Nafarroako errepideei buruzko II. plan zuzendaria (2002-2009) aurkeztuko du.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

1 eta 8an:

– Toki esparruko herri kontsultak arautzen dituen Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzeko.

8an:

– Lan bilera. Bertan, agerraldia eginen dute Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Departamentuko arduradunek eta Nafarroako Unibertsitate Publiko-ko Geografia Departamentukoek, Toki azpiegiturei buruzko plan berezi berria dela-eta egin duten azterlan soziologikoa azaltzeko.

16 eta 17an:

– Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko seigarren titulua (Kontratazioa) aldatzeko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Toki azpiegiturei buruzko 2004ko plan bereziari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDE BEREZIA

2an:

– Iraken aurkako balizko eraso militarren aurkako adierazpen instituzionala eztabaidatu eta bozkatzea. Proposamena Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztu du.

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak dei egiten du bakearen alde eta Estatu Batuek Iraken kontrako gerra estrategiaren aurka azaltzeko.

17an:

– Lan bilera. Bertan agerraldia eginen du Habana Probintziako Gobernuko Nazioarteko Harremanetarako zuzendariak, Habanarekiko IX. Elkartasun Jardunaldien edukia ezagutzera emateko.

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEA

8an:

– Lan bilera. Bertan, “Vida Digna” batzordea agertuko da, alargunen egoera hobetzeko proposamenak azaltzeko.

– Lan bilera. Bertan, Alargun pentsioak berdintzeko plataforma agertuko da, euren eskariak azaltzeko.

9an:

– Etorकिन Nafarroan gizarteratzeko planera-ko proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

15ean:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Familia Ugarien Elkarteko ordezkariak agertuko dira, beren eskarien berri emateko.

16 eta 17an:

– Emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko jarduketei buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

17an:

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari-kudeatzailea agertuko da, futboleko hirugarren mailaren egoerari buruz informa dezan.

25 eta 30ean:

– Pertsona zaharrak hartzeari buruzko Foru Lege proposamena eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

31n:

– Lan bilera. Bertan, AXOLA elkarteak (Nafarroako Gizarte Ongizatea eta Gizarte Zerbitzuak Sustatzeko Elkarteak) etxeko oinarriko osasun laguntzaren berrantolaketari buruz dauzkaten proposamenen berri emanen du.

– Lan bilera. Bertan, senar ohiak eraildako Alicia Arístregui Beraza andrearen senitartekoek zenbait gairi buruz informatuko dute.

EKONOMIA, OGASUN ETA AURREKONTU BATZORDEA

9an:

– Lehendakariordea hautatzea.

– Kontuen Ganbarako lehendakariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, “Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kudeaketa” dela-eta eginiko txostena azaltzeko.

– Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika planari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEA

11n:

– Lan bilera. Bertan, Martzillako Alimentos Congelados, S.A. (ACSA) enpresako langileen batzordeko sindikatuek aipatu enpresako langileak kaleratu izanari buruz informatuko dute:

22an:

– Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo, eta Hezkuntza eta Kultura Batzordeen lan bilera. Bertan, Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo kontseilari Iturriagagoitia Ripoll andreak Baluartea eraikitzeke obren egoerari buruz informatuko du, eta lan bilera bukatutakoan bisita egingen da Baluartera.

30ean:

– Lan bilera. Bertan, Ribaforadako Udala agertuko da, Ribaforada-Buñuelgo azpieskualdeko industrialdearen egoerari buruz informatzeko.

– Lan bilera. Bertan, UGT sindikatua agertuko da, Nafarroako egungo egoera ekonomikoari buruz informatzeko.

– Lan bilera. Bertan, Langileen Komisioak sindikatua agertuko da, Nafarroako egungo egoera ekonomikoari buruz informatzeko.

OSASUN BATZORDEA

11n

– Lan bilera. Bertan, SOS-Nafarroako Operazioen Koordinazio Zentroko langileen ordezkariak agertuko dira, larrialdiak kudeatzeko Positrón sistema berriari buruz informatzeko,

– Lan bilera. Bertan, Indave Galar eta Iriarte Patiño jaunak, SOS-Nafarroatik iraitzitako sendagileak, agertuko dira irazpenei buruz informatzeko.

– Lan bilera. Bertan, Joaquín Betelu Corcuera jauna (Oinarrizko laguntzako zuzendariordea) eta Víctor Manuel Calleja Gómez jauna (Osasunbideko kudeatzailea), aipatu irazpenei buruz informatzeko.

15ean:

– Osasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen behin-behineko egoerari buruz eta bertako bi sendagile-koordinatzaile kanporatu izanari buruz informa dezan.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta

bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da legez kanpoko substantzien erabilera dela-eta aurrea hartzeari buruzko beharriaren azterlan-diagnosia egin dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurketuriko mozioa eztabaidatu eta bozkatzea. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da bi hilabeteko epean katalogo bat ezar dezan, zeinean jasoko baita tentetzearen disfunczioari lotutako zer patologia finantzatu daitekeen ahotik hartzen diren botiken bidez.

22an:

– Lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien Foru Lege proiektua eta hari aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

30ean:

– Osasun kontseilariaren agerraldia, Eledunen Batzarrak eskatuta, osasun gastuaren murrizketari buruz informa dezan.

NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA ETA MENDI BATZORDEA

18an:

– Lan bilera. Bertan, "Nafarroako Ardoa" Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emaileak mahastien eta ardoaren arloko gaur egungo legedia aldatzeari buruz informatuko du.

– Lan bilera. Bertan, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluko arduradunek transgenikoek uzta ekologikoetan sorrarazitako kutsadura genetikoari buruzko proposamen eta azterlanei buruz informatuko dute.

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO BATZORDEA

31n:

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari Foru Lege proiektua eta hari aurkezteko zuzenketak eztabaidatu eta bozkatzea.

2002ko urrian Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Hezkuntza Batzordea Oteiza Fundazioaren Altzuzako Museora bisita egitea eskatzen dute.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Alicia Aristreguiaren ahaideekin lan bilera egitea eskatzen dute.

– Espediente fiskalen isilekotasuna ikertzeko Arartekoak esku har dezan eginiko eskaera, Parlamentuko talde hauek egina: Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua, Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco eta Nafarroako Demokraten Elkargunea.

– Madrilgo Biltzarreko Mahairen idazkia, Leitzan irailaren 24an izandako atentatu terroristari buruzkoa.

– Requenako Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia. Haren bitartez, Mendebaldeko Saharan dagoen gatazkari buruzko mozio bat onesten da.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Eledunen Batzarrari aurkeztutako errekurtoa, Axola Elkar-tearekin lan bilera bat egiteko eskaria ezesteko Mahaiak hartutako erabakiaren aurkakoa.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, 372/2000 Foru Dekretuaren deuseztasun-adierazpena ez argitaratzeari buruzkoa.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunaren idazkia. Horren bitartez, Saharar herriaren aldeko Europako 28. Koordinazio Konferentziara ez joateko harturiko erabakia Mahaiak berrazter dezan eskatzen du.

2an:

– Foru Lege proiektua, Nafarroako Hartz Protesigileen Elkargo Ofiziala sortzeari buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren ziurtagiria, Nafarroako Gobernua emakumeei antisortze-metodoren erabileraren arloko heziketa eta osasun-laguntza berma diezaien premiatzeko onetsitako ebazpena dela eta.

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunaren faktura, Nafarroako Parlamentuaren egoitza

berriaren obretako klausula administratiboen ple-guaren araberako prezioen berrikuspenari dagokiona.

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunaren faktura, 16. ziurtagiriari dagokiona, 2000ko uztail-abuztuko.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, zesarea eta haurren ospitale-larrialdien kopuruari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, pediatrek egiten dituzten guardiei buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, Tuterako ospitaleko laguntza pediatrikoari buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina, pediatriako osasun-txartelen kopuruari buruzkoa.

– Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– “Encuentro eliminación barreras arquitectónicas” delakoaren idazkia. Horren bidez, topaketa horien berri ematen dute.

– Kontuen Ganbarako lehendakariaren ebazpena. Horren bidez, 2003. urterako aurrekontuen proiektua onesten du.

– Arartekoaren idazkia. Horren bidez, Espainiako arartekoen koordinazio-jardunaldien programa jakinarazten du.

3an:

– Foru Lege proiektua, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa. Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia, Rigoberta Menchú agertzeko eskaria erretiratzekoa.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia, Rigoberta Menchú agertzeko eskaria erretiratzekoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, NA-10.074

ehiza-barrutiari buruz egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzeko proposamena. Litografía Iparren proposamena.

– Castejóngo Udalaren erabakia, A-15 errepi-dea saltzeko negoziazioei buruzkoa.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, Biltzarreko zerbitzu juridikoek Biltzarreko saioetan bozketen emaitzak ez desitxuratzeko planteia daitezkeen formulerei buruzko txosten bat egin dezaten eskatzen du.

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen errekurtsioa, Axola kolektiboaren agerraldiari ezezkoa emateko Mahaiak hartutako erabakiaren aurkakoa.

– Foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andrearen idazkia. Horren bidez, lan bilera bat eskatzen du zenbait udaletako ordezkariak Musika-ko udal eskolei buruz informaziorik ez zuten.

– Idazkia, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearena. Horren bitartez, informazioa eskatzen du Nafarroan drogen behatoki bat ezartzeko Barne Ministerioarekin sinatu den protokoloari buruz.

4an:

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin, VW Navarra-ko inbertsioari, enplegua sortzeari eta Nafarroako Gobernuak eginiko ekarpen ekonomikoei buruzkoa.

– Galdera, foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin, Navarra-ko zuzeneko nahiz zeharkako zergen bilketan duen eraginari buruzkoa.

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztutako zuzenketak.

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztutako zuzenketak.

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztutako zuzenketak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei buruzko oinarriko legedia beteari buruz onetsitako erabakiaren betetze mailaren gainean foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren lehendakaria eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emandako arauak aplikatzeko jarduketari buruz Puyo Rebollo jaunak egindako galderaren erantzuna.

– Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko Foru Lege proiektua. Foru parlamentari Shanti Kiroga Asitz jaunak aurkeztutako zuzenketak.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, ondoko udal-ordetzarien agerraldia eskatzen du, musikako udal eskolen egoerari buruz informaziorik ez zuten: Ablitas, Altsasu, Artaxoa, Azagra, Baztan, Bera, Zarrakaztelu, Cintruénigo, Etxarri Aranatz, Uharte, Irurtzun, Lakuntza, Lekunberri, Lesaka, Marcilla, Noain, Erriberri, Gares, Ribaforada, San Adrian, Doneztebe eta Zizur Nagusia.

7an:

– Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzea. Gráficas Santamaría, S.A. ren proposamena.

– Foru parlamentari Igor Arroyo Leatek aurkezturiko errekurtsioa, Sortzen-Ikasbatuaz kolektiboaren agerraldi eskaria ezesteko Mahaiak hartutako erabakiaren aurkakoa.

8an:

– Beriaingo Udaleko Osoko Bilkuraren erabakia, Audenasaren salmentari buruzkoa.

– “Parlamentuaren irudiak” erakusketa egin, produzitu, diseinatu, muntatu eta desmuntatzeko lanak adjudikatzea. Sormen Creativos-en proposamena.

– Energia aurreztu eta energia berriztagarriak sustatzeari buruzko Foru Lege proposamena, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– “Parlamentuaren irudiak” erakusketa egin, produzitu, diseinatu, muntatu eta desmuntatzeko lanak adjudikatzea. Otero&Olló, Comunicación, S.L. ren proposamena.

– Nafarroako Parlamentuari buruzko liburu instituzionala inprimatu eta koadernatzeko lanak kontratatzea. Gráficas Estella, SAren proposamena.

